



**Turruntero Elkarteko ordezkariak izendatzea Muskizko Plangintzako Aholku Batzorderako.**

**Alkate-udalburu jaunak honako ebazpen hau eman zuen 2015eko apirilaren 13an:**

*"Ikusi da joan den 2014ko azaroaren hamazazpian amaitu egin zela Plangintzako Aholku Batzordearen osoko bilkurako kideen karguaren iraunaldia, amaitu egin baitzen haien izendapena. Hori dela eta, Muskizko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren bederatzigarren artikuluekin bat etorriz, eta ikusita kide berriak izendatu behar direla,*

*Eta ikusita martxoaren 27ko Alkatetza Dekretuaren bitartez Plangintzako Aholku Batzordeko ordezkariak izendatu zirela (2015eko martxoaren 5eko BAO n argitaratu zen),*

*Eta ikusita otsailaren 23an Begoña Fernández Martínezek eskaera egin zuela Turruntero Elkartea bizilagunen elkarteko titularra eta ordezkariak izendatzeko, honen bidez, honako hau EBAZTEN DUT:*

*Lehenengoa: Turruntero Elkarteko ordezkari hauek izendatzea Muskizko Plangintzako Aholku Batzorderako:*

*Titularra: Begoña Fernández Martínez andrea*

*1. ordezkoa: Amelia García Espiñeira andrea*

*2. ordezkoa: Blancanieves Laza Gómez andrea*

*Bigarrena: agintzea Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratzea.*

*Hirugarrena: ebazpen hau interesdunei jakinaraztea."*

**Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiek jakin dezaten.**

Muskizen, 2015eko apirilaren 14an



Izpta.: Borja Liaño Abarrategi. Alkatea.